

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARAMAIOKO UDALA

Aramaioko VI-10152 Ehiza Esparrua izeneko ehiza-esparruari dagokion ehiza-aprobetxamendua kontratatzeko lehiaketa

1. Entitate esleitzaila.

a) Erakundea: Aramaioko Udala.

b) Espedientea izapidetzen duen bulegoa: idazkaritza-kontuhartzailletza.

c) Espediente kodea: 2016KIRE0001.

2. Kontratuaren ezaugarriak.

a) Helburua: Aramaioko VI-10152 Ehiza Esparrua izeneko ehiza-esparruari dagokion ehiza-aprobetxamendua kontratatzea.

b) Gauzatze lekua: Aramaio.

c) Gauzatze epea: hamar urte.

3. Izapideak, prozedura eta esleipen era.

a) Izapidetzea: arrunta.

b) Prozedura: irekia.

4. Zenbatetsitako aurrekontua: 4.900,00 euro (BEZ sartu gabe).

5. Fidantzak.

Behin-behinekoa: ez da eskatzen.

Behin betikoa: esleipen zenbatekoaren ehuneko 10a (BEZ sartu gabe).

6. Agiriak eta argibideak.

Bizente Goikoetxea enparantza, 1 – 01160 Aramaio.

E-posta: udala@aramaio.eus

Kontratistaren profila: www.aramaio.eus / www.contratación.euskadi.net

Agiriak eta argibideak lortzeko azken eguna: iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita eta proposamenak aurkezteko epea bukatu arte.

7. Kontratistaren betebeharrak: Ez da klasifikaziorik eskatzen.

8. Eskaintzak aurkeztea:

Aurkezteko azken eguna: ALHAOn iragarkia argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta hamabost (15) eguneko epean. Azken eguna larunbata edo jaieguna bada, hurrengo lane-guna izango da azken eguna.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa: baldintzen pleguan adierazitakoa.

Aurkezteko lekua: Udaletxeko sarrera-erregistroan, Bizente Goikoetxea enparantza, 1 – 01160 Aramaio. Eskaintzak aurkezteko azken eguneko 14:30ak arte.

Postaz igortzea: Administrazio Publikoen Kontratu Legearen Erregelamendu Orokorraren 80.4. artikuluan adierazitako moduan egin ahal izango da. Postaz bidaliz gero, 945 445 356 fax zenbakira igorri beharko da horren jakinarazpena.

9. Egindako eskaintzak noiz aztertuko diren: proposamenak aurkezteko epea amaitu ondorengo laneguneko 10:00etan; larunbata bada hurrengo lanegunean egingo da. Proposamenak Udaletxeko Pleno Aretoan zabalduko dira.

10. Iragarkien eta eskaintzak aurkeztearen gastuak: esleipendunaren kontura baldintza ekonomiko-administratiboen agiriaren hamazortzigarren klausulan jaso hala.

11. Mahaia osatzen duten pertsonak: baldintza ekonomiko-administratiboen agiriaren ha maikagarren klausulan jasotakoarekin bat.

Aramaio, 2016ko irailaren 8a

Alkatea

LIERNI ALTUNA UGARTE